

# **Abenduaren 29ko 102/1992 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duena.**

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **Laugarrena. Derrigorrezko exekuziorako prozedura administratibo eta judizialak.<sup>1</sup>**

Derrigorrezko exekuziorako prozedura administratibo eta judizialetan, zerga honen ondorioetarako enpresari edo profesional izaera bereganatua duten esleipendunek honako hau egiteko ahalmena izango dute subjektu pasiboaren izenean eta kontura, prozedura horietan egiten diren ondasun entrega eta zerbitzu prestazioei dagokienez:

1na. Eragiketa jasotzen duen eta Zergaren kuota jasanarazten duen faktura egin, dagokion aitorten-likidazioa aurkeztu eta ateratzen den zenbatekoa ordaintzeko.

2na. Foru dekretu honen 20. artikuluko bi apartatuan aipatzen diren salbuespenei uko egiteko, hala badagokio.

Ahalmen horiez baliatzeko baldintzak eta beharkizunak erregelamenduz finkatuko dira.

---

<sup>1</sup> Laugarren xedapen gehigarri hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. zenbakiaren hamargarren apartatuak gehitzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.